P.m.c.p.: puntuación máxima por categoría profesional (IVA excluido).

Si se oferta determinado precio unitario por importe de 0 euros, se considerará, a los únicos efectos de aplicar la antedicha fórmula, que el precio unitario ofertado es de 0,01 euros.

La oferta que no mejore los precios unitarios máximos de licitación indicados en el punto 6.2 de la presente Carátula recibirá cero (0) puntos en la valoración del precio unitario ofertado correspondiente.

Cuando se identifiquen proposiciones que puedan ser considerada desproporcionada o anormal, deberá darse audiencia a los licitadores que la hayan presentado para que justifiquen la valoración de la oferta y precisen las

dezaten eta eskaintzaren baldintzak zehatz ditzaten.

condiciones de la misma.

Ondorio horietarako, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo ahal izango da aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 20 portzentaje-unitate edo gehiago txikiagoa duen eskaintza (horretarako, lizitatzaile batek eskainitako prezio unitarioak dagokion haztapenarekin biderkatzearen ondoriozko zenbatekoen batukaria hartuko da eskaintzatzat).

A dichos efectos, podrá ser considerada desproporcionada o anormal aquella oferta (considerándose, a estos efectos, como oferta el sumatorio de los importes resultantes de multiplicar los precios unitarios ofertados por un licitador por su ponderación correspondiente) que sea inferior en 20 unidades porcentuales o más a la media aritmética de las ofertas presentadas.

Nolanahi ere, kontratazio-organoak baztertu egingo ditu eskaintzak, egiaztatzen badu oso baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, estatuan edo nazioartean, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

En todo caso, el órgano de contratación rechazará las ofertas si comprueba que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes.

Kategoria bakoitzari dagokion puntuazioa lortu ondoren, lortutako puntuak batuko dira.

Una vez obtenida la puntuación correspondiente a cada categoría, se sumarán los puntos obtenidos.

- Karatularen 10. puntuan eskatutako gutxieneko profesional-kopurua osatzen duten emakumeen kopurua (gehienez 6 puntu).

- Número de mujeres que forman parte del equipo mínimo de profesionales exigido en el punto 10 de la Carátula (hasta un máximo de 6 puntos).

Gutxieneko profesional-taldeko kide den emakume bakoitzeko 2 puntu emango dira.

Se valorará con 2 puntos cada mujer que forme parte del equipo mínimo de profesionales.

Konpromiso hori betetzen dela egiaztatzeko, kontratua gauzatzen hasten denean, kontratistak kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen aitorpen nominala aurkeztu beharko du.

A efectos de verificar, el cumplimiento de dicho compromiso, el contratista deberá presentar al inicio de la ejecución del contrato, una declaración nominal del personal adscrito a la ejecución del contrato.

13.- EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio-organoak teknikarien laguntza izango du.

13.- COMITÉ DE EVALUACIÓN

El Órgano de Contratación estará asistido por personal técnico.

14.- KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatuko da:

- Berariazko klausula administratiboen pleguko 20. klausulan adierazitakoak.

14.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO

El contrato se ejecutará con arreglo a las siguientes condiciones:

- Las indicadas en la Cláusula 20 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

- Horrez gain, SPKLren 202. artikuluan xedatutakoa betez, exekuzio-baldintza berezi hauek ezartzen dira, izaera sozialekoak:

- Adicionalmente, en cumplimiento de los dispuesto en el artículo 202 de la LCSP, se establecen como condiciones especiales de ejecución, de carácter social, las siguientes:

Kontratuak irauten duen bitartean, kontratistak neurriak ezarri beharko ditu kontratua gauzatzera atxikitako langileen bizitza pertsonala eta/edo familia bateragarri egiteko, eta egiaztatu beharko du, hala badagokio, enpresa azpikontratistak ere neurri berberak ezarri dituela. Neurri horien artean, familia-kargak dituzten langileen ordutegi-malgutasuna ziurtatzeko neurriak hartzeko betebeharra eskatuko zaio enpresari, edo familia-erantzukizunak dituzten langileen lanaldi partzialaren eta lanaldi osoaren arteko

Durante la duración del contrato, el contratista deberá establecer medidas que favorezcan la conciliación de la vida personal y/o familiar de las personas trabajadoras adscritas a la ejecución del contrato y verificar que, en su caso, la empresa subcontratista también ha establecido las mismas medidas. Entre dichas medidas, se exigirá la obligación a la empresa de adoptar medidas para asegurar la flexibilidad horaria para el personal con cargas familiares o adoptar mecanismos destinados a asegurar la movilidad entre tiempo

mugikortasuna ziurtatzeko mekanismoak ezartzekoa.

parcial y tiempo completo para las personas trabajadoras con responsabilidades familiares.

Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, kontratistak urtero zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du, honako hauek jasoko dituena: aplikatutako adiskidetze-neurriak, horien edukia, iraupena eta onuradunen izenen zerrenda.

A efectos de verificar el cumplimiento de dicha condición, el contratista deberá presentar, con carácter anual, una declaración jurada comprensiva de las medidas de conciliación aplicadas, su contenido, duración y la relación nominal de las personas beneficiarias

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek eskatuko zaie, halaber, kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratistei.

Dichas condiciones especiales de ejecución serán exigibles igualmente a los subcontratistas que participen en la ejecución del contrato.

15.- FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

15.- OBLIGACIONES CONTRACTUALES ESENCIALES

Funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira berariazko klausula administratiboen pleguko 21. klausularen b), c), d), e), h) eta o) letretan ezarritakoak, bai eta karatula honetan halakotzat jotako betebehar guztiak ere.

Serán obligaciones contractuales esenciales las establecidas en las letras b), c), d), e), h), y o) de la Cláusula 21 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como todas las obligaciones calificadas como tales en la presente Carátula.

Horrez gain, kontratuaren funtsezko betebeharra izango da aurreko 15. puntuko bigarren gidoian ezarritakoa.

Adicionalmente, será obligación contractual esencial la establecida en el segundo guion del punto 15 anterior.

16.- DATU PERTSONALEN BABESA

16.- PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

16.1.- KONTRATAZIO-PROZESUKO DATUEN TRATAMENDUA

16.1.- TRATAMIENTOS DE DATOS EN EL PROCESO DE CONTRATACIÓN

Lizitatzaile bakoitzak entitate kontratatzaileari lizitazio honen

Los datos personales relativos a representantes, empleados y/o

esparruan ematen dizkion ordezkariei, enplegatuei edo hirugarrenei buruzko datu pertsonalak, bai eta hautatutako lizitatzaileak dagokion kontratua formalizatzeko eta/edo gauzatzeko ematen dituenak ere, Cristina Enea Fundazioak tratatuko ditu, tratamenduaren arduraduna den aldetik, aipatutako kontratazio-prozesua kudeatzeko eta bi alderdien artean sortzen den kontratua formalizatzeko eta gauzatzeko. Hori guztia, kontratazio publikoaren arloan ezarritako legezko betebeharren oinarri juridikoaren gainean (SPKL eta horri lotutako araudi osagarria).

terceros que cada uno de los licitadores facilite a la entidad contratante en el marco de la presente licitación, así como aquellos otros que el licitador seleccionado facilite para la formalización y/o ejecución del correspondiente contrato, serán tratados por Fundación Cristina Enea, como Responsable del Tratamiento, con la finalidad de gestionar el referido proceso de contratación y la formalización y ejecución del contrato que resulte entre ambas partes. Todo ello, sobre la base jurídica de las obligaciones legales establecidas en materia de contratación pública (LCSP y normativa complementaria y/o conexa).

Datu pertsonal horiek Cristina Enea Fundazioari dagozkion legezko betebeharrak betez jakinarazi behar zaizkien entitate, erakunde publiko edo hirugarrenei jakinaraziko zaizkie (gardentasunaren arloan aplikatzekoak diren betebeharrak barne). Testuinguru horretan, jasota geratzen da datu pertsonal horiek ematea eta, hala badagokio, erakundeei, organismo publikoei eta/edo hirugarrenei jakinaraztea beharrezkoa dela; beraz, datu horiek ematen ez badira eta/edo jakinarazpen hori egiten ez bada, lizitatzaileek ezin izango dute parte hartu kontratazio-prozeduran, ez eta dagokion kontratua formalizatu eta gauzatu ere.

Los antedichos datos personales serán comunicados a las entidades, organismos públicos, y/o a terceros a los que deban de comunicarse en cumplimiento de las obligaciones legales que corresponda observar a Fundación Cristina Enea (incluidas las obligaciones que, en su caso, resulten aplicables en materia de transparencia). En este contexto, se hace constar que la aportación de dichos datos personales y su eventual comunicación a las entidades, organismos públicos y/o terceros, cuando procedan, resultan necesarias, de tal forma que, en caso de no facilitarse dichos datos y/o no realizarse la antedicha comunicación, no resultaría posible la participación de los licitadores en el procedimiento de contratación, ni la formalización y ejecución del correspondiente

contrato.

Hautatu ez diren lizitatzaileek emandako datuak kontratazio-prozedura behar bezala kudeatzeko behar den denboran gordeko dira, eta Cristina Enea Fundazioak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar duen kontserbazio-epe gehigarrian. Hautatutako lizitatzaileak emandako datuak kontratua behar bezala gauzatzeko behar den denboran gordeko dira, eta Cristina Enea Fundazioak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar duen kontserbazio-epe gehigarrian.

Los datos aportados por los licitadores no seleccionados serán conservados durante el tiempo estrictamente necesario para la adecuada gestión del procedimiento de contratación y por el plazo adicional de conservación que Fundación Cristina Enea deba observar para el cumplimiento de sus obligaciones legales. Los datos aportados por el licitador seleccionado serán conservados durante el tiempo necesario para la adecuada gestión de la ejecución del contrato, y por el plazo adicional de conservación que Fundación Cristina Enea deba observar para el cumplimiento de sus obligaciones legales.

Nolanahi ere, emandako datuak dituzten interesdunek eskubidea dute (i) beren datu pertsonaletarako irispidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko edo haien tratamendua mugatzeko ere, edo, hala dagokionean, haien tratamenduaren aurka egiteko, cristinaenea@donostia.eus helbidera zuzendutako idatzizko eskaera baten bidez, eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko kontrol-agintaritza eskudunari, bereziki beren eskubideak baliatzean gogobetetzea lortu ez dutenean.

En todo caso, los interesados cuyos datos se faciliten tienen derecho a (i) solicitar el acceso a sus datos personales, así como a su rectificación, supresión, limitación de su tratamiento, o a oponerse a su tratamiento, cuando proceda, mediante solicitud escrita dirigida a cristinaenea@donostia.eus y (ii) presentar una reclamación ante la Autoridad de Control competente, especialmente cuando no hubieran obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.

16.2.- DATUEN TRATAMENDUA KONTRATUA GAUZATZEKO ESPARRUAN

16.2.- TRATAMIENTOS DE DATOS EN EL MARCO DE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Lizitazio honen xede den kontratua

La ejecución del contrato objeto de la

gauzatzeko, haren edukiaren arabera, kontratistak datu pertsonalen tratamenduak egin beharko ditu entitate kontratatzailearen kontura.

presente licitación requerirá, en atención a su contenido, que el contratista realice tratamientos de datos personales por cuenta de Fundación Cristina Enea.

Testuinguru horretan, kontratistak nahitaez bete beharko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (aurrerantzean, DBEO), bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere (aurrerantzean, DBLO).

En este contexto, el contratista quedará obligado al cumplimiento de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en lo sucesivo, RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (en lo sucesivo, LOPD-GDD).

Horrela, kontratistak, tratamendu-eragilea den aldetik, entitate kontratatzailearekin dagokion kontratua sinatu beharko du, DBEOren 28. artikuluan zehaztutako edukiarekin eta irismenarekin.

De este modo el contratista, en su condición de Encargado del Tratamiento, se obliga a suscribir con Fundación Cristina Enea el correspondiente contrato con el contenido y alcance que determina el artículo 28 del RGPD.

Erakunde kontratatzailearen eta kontratistaren artean zerbitzu-kontratua sinatzearekin batera sinatu beharko da kontratu hori.

Dicho contrato deberá ser suscrito con carácter simultáneo a la firma del contrato de servicios entre Fundación Cristina Enea y el contratista.

Nolanahi ere, eta aipatutako kontratuan horretarako ezartzen dena alde batera utzita, lizitazio honen xede den kontratazioa dela eta, kontratistak honako aurreikuspen hauek bete beharko ditu:

En todo caso y con independencia de lo que se establezca al efecto en el aludido contrato, con motivo de la contratación objeto de esta licitación, el contratista se obliga a observar las siguientes previsiones:

a) DBEOn, DPB-EDBLOn eta estatuko

a) Cumplirá lo dispuesto en el RGPD,

eta Europar Batasuneko gainerako arauetan xedatutakoa beteko du, entitate kontratatzailearen eta kontratistaren artean zerbitzuak emateko kontratua indarrean dagoen bitartean datu pertsonalak babesteari dagokionez.

en la LOPD-GDD y en el resto de las normas nacionales y de la Unión Europea en materia de protección de datos personales que resulten de aplicación durante la vigencia del contrato de prestación de servicios entre Fundación Cristina Enea y el contratista.

b) Datu pertsonalak xede hauetarako baino ez ditu erabiliko:

- Langileen kudeaketa.
- Bezeroen kudeaketa, kontabilitatekoa, fiskala eta administratiboa.
- Hornitzaileen, kontabilitatearen, zergen eta administrazioaren kudeaketa.
- Merkataritza-prospekzioa.

b) Tratará los datos personales únicamente con la/s siguiente/s finalidad/es

- Gestión de personal.
- Gestión de clientes, contable, fiscal y administrativa.
- Gestión de proveedores, contable, fiscal y administrativa.

- Prospección comercial.

c) Kontratua formalizatu aurretik, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren **VII. eranskin** gisa erantsitako ereduaren arabera, datu pertsonalen tratamenduari euskarria emango dioten zerbitzarien kokapen fisikoa eta horiei lotutako zerbitzuak non emango diren identifikatzeko.

c) Presentará, con carácter previo a la formalización del contrato, una declaración responsable, conforme al modelo adjunto al Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares como **Anexo VII**, en la que identifique la ubicación física de los servidores que den soporte al tratamiento de datos personales y el lugar desde el cual se prestarán los servicios asociados a éstos.

d) Kontratua indarrean dagoen bitartean, aurreko c) letran aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera emandako informazioan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraziko du.

d) Comunicará cualquier cambio que, durante la vigencia del contrato, se produzca en relación con la información facilitada en virtud de la declaración responsable prevista en la letra c) anterior.

e) Cristina Enea Fundazioaren jarraibide dokumentatuei jarraikiz

e) Tratará los datos personales únicamente siguiendo las instrucciones

baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak.

documentadas de Fundación Cristina Enea.

f) Bermatuko du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek konfidentzialtasun-betebehar egokia dutela.

f) Garantizará que las personas autorizadas para tratar datos personales estén sujetas a una obligación de confidencialidad adecuada.

g) Arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatuko ditu, kontuan hartuta teknikaren egoera, aplikazio-kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak, bai eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako aldakorrak diren probabilitate- eta larritasun-arriskuak ere. Besteak beste, eta adibide gisa soilik, honako neurri hauek baloratuko dira:

g) Aplicará las medidas técnicas y organizativas apropiadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo, teniendo en cuenta el estado de la técnica, los costes de aplicación, y la naturaleza, el alcance, el contexto y los fines del tratamiento, así como los riesgos de probabilidad y gravedad variables para los derechos y libertades de las personas físicas. Se valorarán, entre otras y a efectos meramente enunciativos, las siguientes medidas:

- Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea;
- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko neurriak;
- Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berreskuratzeko eta azkar eskuratzeko neurriak;
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesuak.

- La pseudonimización y el cifrado de datos personales;
- Medidas para garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento;
- Medidas de restauración y acceso a los datos personales de forma rápida en caso de incidente físico o técnico;
- Procesos de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

h) Cristina Enea Fundazioak, hala eskatzen dionean, datu pertsonalen

h) Aportará, cuando así se lo requiera Fundación Cristina Enea y a modo de

babesaren arloan dituen betebeharrak betetzen dituela frogatzeko, (i) Cristina Enea Fundazioaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroaren kopia bat aurkeztuko du; eta (ii) Cristina Enea Fundazioak egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentu, baldin eta dokumentu horrek lotura badu kontratistak Cristina Enea Fundazioaren kontura egiten duen datu pertsonalen tratamenduarekin.

prueba del cumplimiento de sus obligaciones en materia de protección de datos personales (i) una copia del registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas por cuenta de Fundación Cristina Enea; y (ii) cualquier otro documento que Fundación Cristina Enea estime conveniente, siempre que éste tenga relación con el tratamiento de datos personales que el contratista lleve a cabo por cuenta de Fundación Cristina Enea.

i) Cristina Enea Fundazioak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoretzak egitea baimenduko du eta egiten lagunduko du.

i) Permitirá y contribuirá a la realización de auditorías, incluidas inspecciones, por parte de Fundación Cristina Enea o de otro auditor autorizado por ésta.

j) Cristina Enea Fundazioa kontratatzaileari jakinaraziko dio zein diren segurtasun-neurriak abian jartzeko eta ikuskatzeko ardura zuzena duten pertsonak.

j) Comunicará a Fundación Cristina Enea contratante la persona o personas directamente responsable/s de la puesta en práctica e inspección de las medidas de seguridad.

k) Bere langileei prestakuntza eta informazioa emango die datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko arauditik datozen betebeharrei buruz.

k) Formará e informará a su personal en las obligaciones que dimanan de la normativa aplicable en materia de protección de datos personales.

Aurreko a) letratik d) letrara bitartekoetan ezarritako betebeharrak funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, betebehar hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, erakunde kontratatzailearen borondatez.

Las obligaciones establecidas en las letras a) a d) anteriores tendrán el carácter de obligación contractual esencial a los efectos previstos en el artículo 211.1.f) de la LCSP, siendo por tanto el incumplimiento de la misma causa de resolución del contrato, a voluntad de la entidad contratante.

cristina enea
FUNDAZIOA

17.- KONFIDENTZIALTASUNA

Konfidentzialtasun-betebeharra bost urtez gordeko da, kontratua gauzatzean eskuratzen den informazioaren berri izaten denetik Aurrera.

17.- CONFIDENCIALIDAD

El deber de confidencialidad se mantendrá durante un plazo de cinco años desde el conocimiento de la información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato.

18.- ASEGURUAK

Kontratistak, kontratuaren indarraldian zehar eta bere kontura, erantzukizun zibil profesionaleko aseguru-poliza bat sinatu beharko du, gutxienez 5.000 eurokoa, kontratatutako zerbitzuak gauzatzetik eratorritako erantzukizunak estaltzeko.

18.- SEGUROS

El contratista deberá tener suscrita a su costa y a lo largo de la vigencia del contrato, una póliza de seguros de responsabilidad civil profesional con un importe mínimo de 5.000 euros, para cubrir sus responsabilidades derivadas de la ejecución de los servicios contratados.

19.- JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Berariazko klausula administratiboen eta preskripzio teknikoen pleguko 26. klausulan ezarritako aurreikuspenak aplikatuko dira.

19.- PROPIEDAD INTELECTUAL Y/O INDUSTRIAL

Serán de aplicación las previsiones establecidas en la Cláusula 26 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas.

20.- ZIGORRAK

Epeetan berandutzeagatiko zigorrak (osoak edo partzialak), kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, atzeratutako egun bakoitzeko 100 eurokoak izango dira, BEZik gabe.

Zigor hori bera aplikatuko da kontratua behar bezala betetzen ez bada edo kontratua gauzatzeko funtsezko

20.- PENALIZACIONES

Las penalizaciones por demora en los plazos (total o parciales), en el supuesto de que se opte por continuar en la ejecución del contrato serán de 100, euros/día de retraso, IVA excluido.

La misma penalización será de aplicación en caso de cumplimiento defectuoso o incumplimiento de

edozein betebehar edo baldintza betetzen ez bada, baldin eta kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada. Kasu horretan, behar bezala zuzentzeko, betetzeko edo behar bezala gauzatzeko behar den egun-kopuruari aplikatuko zaio zigorra.

cualesquiera obligaciones o condiciones esenciales de ejecución, si se opta por continuar en la ejecución del contrato, En este caso, la penalización se aplicará sobre el número de días que efectivamente sean precisos para la oportuna subsanación, cumplimiento o correcta ejecución.

Bi kasuetan, zigor horiek egiaztatzen diren kalte-galerei metatu ahal zaizkie.

En ambos casos, las referidas penalizaciones son acumulativas a los daños y perjuicios que se acrediten.

21.- KONTRATUA LAGATZEA

21.- CESIÓN DEL CONTRATO

Bidezkoa da, berariazko klausula administratiboen eta preskripzio teknikoen pleguko 27. klausulan adierazitako moduan.

Procede, en los términos indicados en la Cláusula 27 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas.

22.- AZPIKONTRATAZIOA

22.- SUBCONTRATACIÓN

Kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du prestazioaren zati bat gauzatzea, administrazio-klausula zehatzen pleguaren 29. klausulan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

El contratista podrá concertar con terceros la realización parcial de la prestación con sujeción a lo que disponga la Cláusula 29 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el artículo 215 de la LCSP.

23.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

23- MODIFICACIONES DEL CONTRATO

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

El Órgano de Contratación podrá modificar el contrato en los supuestos previstos en el artículo 205 de la LCSP.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa alde batera utzi gabe, eta ondorio hauetarako ezartzen den SPKLren 309.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ez da aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatzen

Sin perjuicio de lo señalado en el párrafo anterior y de conformidad a lo dispuesto en el artículo el 309.1 de la LCSP, que a estos efectos se establece de aplicación, no tendrá la consideración de modificación, la

den bitartean karatula honetan aurreikusitakoez gain benetan egindako kopia/inprimaketen kopuruan soilik gertatzen den aldaketa. Aldaketa horiek likidazioan jaso ahal izango dira, baldin eta ez badute eragiten gastuaren gehikuntza karatula honen 6.2 puntuan adierazitakoa baino handiagoa.

variación que durante la correcta ejecución de la prestación se produzca exclusivamente en el número de copias/impresiones realmente ejecutadas sobre las previstas en el presente Carátula, las cuales podrán ser recogidas en la liquidación, siempre que no representen un incremento del gasto superior al indicado en el punto 6.2 de la presente Carátula.

24.- BERME-EPEA

Ez dagokio.

24.- PLAZO DE GARANTÍA

No procede.

25.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Berariazko klausula administratiboen pleguko 33. klausulan adierazitakoak izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen arrazoi batengatik suntsiarazten bada, kontratuaren prezioaren % 20 sorraraziko da entitate kontratatzailearen alde, BEZik gabe. Zigor hori egiaztatzen diren kalte-galerei gehituko zaie.

25.- RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

Serán causas de resolución del contrato las señaladas en la Cláusula 33 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

En todo caso de resolución del contrato por causa imputable al contratista se devengará a favor de la entidad contratante una cantidad equivalente al 20% del precio del contrato, IVA excluido. Dicha penalización es cumulativa a los daños y perjuicios que se acrediten.

Donostia, 2026ko urriaren 23a

En San Sebastián, a 23 de octubre de 2026.

JOSE MARIA HERNANDEZ GOMEZ - 34099128H

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE MARIA HERNANDEZ GOMEZ - 34099128H
Data: 2026.10.23 10:05:47 +02'00'

D. Jose Mª Hernandez
Fundación Cristina Enea Fundazioa